ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2022ko irailaren 23a, ostirala • 109 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

# ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**445/2022 Foru Agindua, irailaren 14koa. Deialdia, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari atxikitako Arabako Lege eta Administrazio Erakundeko zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1081.001) izendapen askearen bidez betetzeko**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari atxikitako Arabako Lege eta Administrazio Erakundeko zerbitzuaren buruaren lanpostua hutsik dagoenez (kodea: 1081.001), lanpostu hori betetzeko deialdia iragartzea erabaki da.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak 46.1 artikuluan xedatzen du funtzionarioentzako gordeta dauden lanpostuak lanpostu zerrendetan ezarritakoaren arabera bete behar direla, lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez.

Arabako Foru Aldundian indarrean dagoen lanpostu zerrendak xedatzen du Arabako Lege eta Administrazio Erakundeko Zerbitzuaren buruaren lanpostua Euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionarioek bete behar dutela izendapen askearen bidez.

Aztertu dugu Kontuhartzailetza eta Kontrol Zerbitzuak Arabako Lurralde Historikoaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Foru Arauaren arabera emandako 210 zenbakiko arauen kontrol ekonomikoaren txostena.

Bat etorriz, batetik, Funtzio Publikoaren Alorreko Eskumenak ezarri zituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, eta, bestetik, funtzio publikoaren alorrean eskumena duen sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretuan xedatutakoarekin,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Deialdia egitea, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari atxikitako Arabako Lege eta Administrazio Erakundeko zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1081.001) izendapen askearen bidez betetzeko.

Bigarrena. Onestea foru agindu honen eranskinean jaso diren eta deialdia arautuko duten oinarriak.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundearen beraren aurrean, hori guztia Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Prozedura Erkidearenaren urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko irailaren 14an

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
*CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR*

ERANSKINA

**OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILARI ATXIKITAKO ARABAKO LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEKO ZERBITZUAREN BURUAREN LANPOSTUA (KODEA: 1081.001) IZENDAPEN ASKEAREN BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK.**

**LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA.**

Deialdi honen xedea da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari atxikitako Arabako Lege eta Administrazio Erakundeko zerbitzuaren buruaren lanpostua (kodea: 1081.001) izendapen askearen bidez betetzea.

**BIGARRENA.- LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA**

Sailkapen taldea: A

Sailkapen azpitaldea: A1

Destino osagarriaren maila: 28

Berariazko osagarria: 48.330,90 euro

Lantokia: Gasteiz

Dedikazioa: esklusiboa

Ordu prestasuna: 60 ordu

Hizkuntza eskakizuna: 4. HE, derrigortasun datarik gabe

**HIRUGARRENA.- BETEKIZUNAK**

Euskal administrazio publikoetako karrerako funtzionario izatea, A sailkapen taldekoa, A1 titulazioko azpitaldekoa, eta Administrazio Orokorreko edo Administrazio Bereziko Eskalakoa edo Eusko Jaurlaritzaren uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz horren baliokidea den eskala batekoa.

**LAUGARRENA.- ESKABIDEAK**

Interesa dutenek bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari zuzendu behar dizkiote eskaerak, eta Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan xedatzen dituen bideetako edozeinetatik. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzte, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Eskaera horretan datu pertsonalez gain honako hauek ere jakinarazi beharko dira:



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

A) Ikasketa tituluak.

B) Nola herri administrazioan hala enpresa pribatuan izandako lanpostuak.

C) Egindako ikasketak eta ikastaroak; hizkuntzen inguruko ezagutza.

D) Izangaiak egoki irizten dien bestelako merezimenduak.

Horrekin batera, eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dira.

**BOSGARRENA.- EBAZPENA.**

Izangaiek aurkeztutako merezimenduak aztertuta, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak izendapen proposamena egingo dio bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari.

Izangaien arteko inor lanposturako egoki jotzen ez bada, deialdia bete gabe utz daiteke.

Esleipena bigarren diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak egingo du, foru agindu bidez.

**SEIGARRENA.- AURKA EGITEA.**

Oinarri hauek, deialdia bera eta horien ondorio diren administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasu eta moduetan.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2022.09.23 05:37:30 Z